



**EcoEuskadi                      2020                      Garapen**  
**Jasangarrirako Estrategia**

*2011ko maiatzaren 9ko, 10eko eta 11ko II. partaidetza  
topaketetarako dokumentua*



## Helburu estrategikoak

### **1. Euskadi ekonomia aurreratu, ekoeraginkor eta ireki bihurtzea**

Euskal ekonomia irekia eta lehiakorra da gaur egun, eta horri esker, egungo belaunaldiak duen bizi maila lortu da. Etorkizun hurbilean, nazioartean lehiakorrak izaten jarraitzeko, produktuen ziklo integralaren ikuspuntutik energia baliabideak eta lehengaien erabilera optimizatzen dituzten teknologia eta prozesu eraginkorrak garatu beharko ditugu, munduko lehiakortasunaren hazkundera, merkataritza jarduera askori eragiten dien globalizazioa eta energiaren eta lehengaien agortzea direla eta. Horretarako ezagutza aurreratu berria garatu behar dugu, zientzian eta horren aplikazio teknologikoetan oinarrituta, eta demografikoki geldituta edo atzeratuta dauden gizarteetako lanpostuen balio erantsia handitu behar dugu. Herrialde txiki garen heinean, errazagoa izango zaigu hori lortzea mundu mailako sareetako beste eragile batzuekin lankidetzan ari bagara, gu bakarrik modu isolatuan arituta baino.

### **2. Erabat integratzailea den eta enpleguan, hezkuntzan, prebentzian eta elkartasunean oinarritutako kohesioa duen Euskadi finkatzea**

Euskal gizartearen bereizgarri dira gizarte elkartasunaren maila altua eta berdinaletasun handia, eta gizarte-egoera txarrean dauden gutxiengoei arreta berezia ematea. Gizarteratzearen faktore nagusia pertsonen gaitasunaren araberako lanpostuak lortzea da, zalantzarik gabe. Hori lortzeko, hezkuntza sistema potentziala garatzera bideratuta egotea funtsezkoa da gero eta interaktiboagoa, anitzagoa eta irekiagoa den gizartean. Aipatutakoarekin bat datorren enpleguak eta hezkuntza motibagarriak bizi ohitura osasungarriak eta integratzaileak izateko aukera eman behar dute. Osasunak eta gizarte zerbitzuek gure ongizate sistema osatzen dute; horrela, gure gizarteak pertsonen integrazioa ekitatez bermatzeko garatu duen esparrua osatzen da. Balio aldaketek, bizitzeko moduen eta kultura ereduaren aniztasunak eta lan merkatuaren gero eta lehiakortasun handiagoak gizarte bazterketa arrisku handitzen dute eta gure sistemak horri erantzun behar dio, egokituta eta eraginkortasuna hobetuta.

### **3. Gizarte babeseko sistemak indartzea, garapen harmonikoa, osasungarria eta bidezkoa bermatzen jarrai dezaten**

Gizarte babeseko sistemak pertsoneri bizi baldintza duinak bermatzeko sortzen dira, beren bizi proiektua modu osasungarrian gauzatu ahal izan dezaten. Aldaketa demografikoek –jaiotza-tasa igotzea eta bizitza luzatzea– eskari berriak sortzen dituzte (mendekotasunak gora egitea, kronikotasunak irautea). Gizarteak zerbitzuak eta finantzaketa mekanismoak modu eraginkoragoan antolatzeari garrantzia emango dioten formulekin erantzun behar dio horri. Bestalde, zailagoa da sistemari ekonomikoki eustea, populazio aktiboa (lan egiten dutenak edo langabezian daudenak) txikitzen eta populazio ez aktiboa (adingabeak, ikasleak, lanik egin nahi ez duten herritarrak, pentsiodunak eta abar) handitzen ari direlako. Beraz, multzo osoaren bideragarritasuna bermatzeko diru sarreraren eta gastuen ikuspuntuak kontuan hartu eta sistema egokitu beharko da.

### **4. Gure natura baliabideei eta biodibertsitateari eustea, eta horretarako, lurraldea, azpiegiturak, ekipamenduak eta etxebizitzak errespetuz eta orekaz antolatzea**

Hiri jarduerak (etxegintza, produktiboak eta zerbitzutakoak) hedatu dira, garraio azpiegiturak ugartu dira eta gero eta nekazaritza jarduera gutxiago egiten dira. Hori dela eta, lurzoru gehiago kontsumitzen

da eta habitat naturalak zatikatzen ari dira. Ondorioz, biodibertsitatearen biziraupena arriskuan dago eta paisaia naturala erabat aldatu da. Giza jarduerak gauzatzeko lurzorua behar da, baina lurzorua optimizatu beharreko kapital baliotsu eta urri gisa kudeatu behar da, haren natura funtzioak gara daitezten eta ekosistemengan eta baliabide naturalengan egon daitekeen eragina gutxitu dadin.

**5. *Jatorri fosileko energiarekiko mendekotasuna txikitzea, eta klima aldaketaren eta horren eraginaren aurka borrokatzea***

Erregai fosiletan oinarritzen den egungo energia sistema agortuko delako aurreikuspenak ekoizpen eta kontsumo sistemen arriskua handitzen du –esate baterako, Euskadikoak ez du hornitzeko barne iturririk-. Merkatuko prezioen aldakortasuna handitu egin da garapen bidean dauden ekonomia handien eskariak eta petrolioia ekoizten duten herrialde askoren ezegonkortasun politikoak gora egin dutelako. Hori dela eta, energia berriztagarritan oinarritutako sistemarantz ahalik eta azkarren eboluzionatu behar dugu eta epe luzean (2050) ia guztia ordezkatzeko aurreikuspena izan behar dugu. Hala, gainera, klima aldaketa bizkortzen duten oinarritzko zergatiak lantzen dira aldi berean.

**6. *Lurralde barruan egituratzeko eta kanpoaldearekin lotura lehiakorra izateko aukera emango duen mugikortasun integratu jasangarriagoaren eredia garatzea***

Euskadiko garraio sistema ibilgailu pribatuetan eta errepide bidezko zirkulazioan oinarritzen da batik bat. Trena hazten ari da bidaiarien garraioan, baina soilik eremu jakin batzuetan. Abiadura handiko trenbide sare berria eraikitzearekin batera, aurrera egin behar dugu tren sistema integrala (EAeko mugikortasun eskari nagusiei zerbitzua emango diena) eta integratzailea (beste garraio azpiegitura batzuen, tartean, aireportuen, portuen eta autobus terminalen osagarri izango dena) eskaintzeko. Garraio intermodala eta motorrik gabeko moduak sustatzen eta *Euskal Metropolia* eraikitzen lagundu nahi da. Bestalde, errepide bidezko garraioa da energia fosil gehien kontsumitzen duenetako bat; hortaz, ibilgailuen garapena (isuriari gehieneko muga murriztea, bioerregaiak erabiltzea, ibilgailu elektrikoak kaleratzea eta abar) alde batera utzita, trenbide sistema garatzeak petroliotik eratorritakoen kontsumoa murriztuko du eta 5. helburua betetzen lagunduko du erabat.

**7. *Kalitatezko hezkuntza eta balio sistema sortzea, eskola arrakasta lortzera bideratutakoa, malgua eta moldagarria, lan merkatuak eta gizarteak eskatzen dituen gaitasunetara egokitu ahal izateko.***

*Hezkuntza sistema, eta, bereziki, unibertsitatea funtsezkoak dira erronka berriei aurre egiteko beharrezko ezagutza eskuratzeko; gainera, aldaketak gero eta azkarrago denez bizi osoko prestakuntzaren kontzeptua onartu behar dugu. Eta, ezagutzaren muga gaudenez, ekoizpen jasangarriko sistema berriek ikerketaren eta zientziaren munduan murgiltzea eskatzen dute.*

*Hezkuntza sistemak transmititu behar dituen balio tradizionalak gordetzeaz gain, berrikuntzagatiko, lankidetzagatiko eta mundura irekitzeagatiko gogoia sustatuko duten beste berri batzuk garatzea beharrezkoa da. Baina mundu globalean sartzeak ez gaitu gure erroak, gure historia eta gure izateko modua galtzera eraman behar. Aitzitik, gure kulturari berari ere dimentsio globala emateko balio behar du.*

**8. *Herritarrentzako berritzailea, eraginkorra, irisgarria eta gardena den administrazio publikoa zabaltzea.***

*Administrazio publikoaren kultura berrirantz aurrera egin behar dugu, alegia, erabakiak hartzeko toki eta eragile gehiago dituen erabakiak hartzeko beste modu bat bezala ulertu behar dugu gobernantza. Izan ere, gure erronken hedadurak konponbideak kudeatzeko beste modu bat eskatzen du, hau da, administrazioetako maila ezberdinetan ahalik eta parte hartze eta lankidetzaren handiena egon behar da*

*eta herritarrek eta intereseko taldeek parte hartze aktiboa izan behar dute. Eraginkorragoa eta arinagoa egitea ere eskatzen du, baita bikoiztasunak edo eskumenak gainjartzea saihestea eta arazo berriei erantzun berriak emateko gizartearekin batera lan egiteko bestelako moduak bilatzea ere.*

**9. EAEn Milurteko helburuak betetzea, eta, oro har, herrialde kaltetuenek garapen jasangarria lor dezaten laguntzea.**

*Izen ere, mundua ez da jasangarria izango, herri kaltetuenen garapenarekiko ditugun erantzukizunak gure gain hartzen ez baditugu. Euskadik Milurteko Adierazpena berretsi du eta bere gain hartu ditu nazioarteko kohesioa bultzatzeko erronkak.*

## HELBURU BAKOITZEKO JARDUKETA ILDOAK

<b>1. HE. Euskadi ekonomia aurreratu, ekoeraginkor eta ireki bihurtzea</b>
1.1. Berritzailea, ekintzailea eta teknologikoki aurreratua den eta ezagutzan, sormenean, lankidetzan eta eskumenetan oinarritzen den ekonomia bultzatzea.
1.2. Lanpostu berdeen sorrera bultzatzea eta lehengaien edo naturako gaien kontsumoa eta horiekiko ekoizpen mendekotasuna murriztea, jasangarritasuna abantaila lehiakor bihurtzeko.
1.3. Euskal enpresak eta erakundeak nazioarteko bihurtzen laguntzea.
<b>2. HE. Erabat integratzailea den eta enpleguan, hezkuntzan, prebentzioan eta solidaritatean oinarritutako kohesioa duen Euskadi finkatzea</b>
2.1. Integrazioa eta gizarte kohesioa bermatzea.
2.2. Prebentzioa, osasunaren eta autonomiaren sustapena eta baliabideak eskuratzeko aukera berdintasuna bultzatzea, gizarte mugen ikuspuntua kontuan izanik.
2.3. Enplegu politika aktiboak, batik bat biztanleriako mugako segmentuei (gazteak eta adineko pertsonak) zuzendutakoak sustatzea eta horien enplegarritasunaren alde egitea.
<b>3. HE. Gizarte babeseko sistemak indartzea pertsonen garapen harmonikoa, osasungarria eta bidezkoa bermatzen jarrai dezaten</b>
3.1. Jaiotza-tasa handitzen lagunduko duen politika aktiboen esparru globala diseinatzea.
3.2. Diru sarrerak transferitzeko sistemak, belaunaldien arteko solidaritatea bermatuko dutenak, indartzea.
3.3. Euskal administrazio publikoaren kargura dagoen egungo ongizate estatuaren (mendekotasuna, diru sarrerak bermatzeko errenta, osasuna) zerga jasangarritasuna sendotzea.
<b>4. HE. Gure natura baliabideei eta biodibertsitateari eustea, eta horretarako, lurraldea, azpiegiturak, ekipamenduak eta etxebizitzak errespetuz eta orekaz antolatzea</b>
4.1. Landa ingurua errespetatzen duen hiri konpaktuaren eredua bultzatzea; horretarako, lurzorua modu eraginkorragoan erabiltzea, hiri hazkunderako aukerei mugak jartzea, erabilerak nahastea, joan-etorrien denborak murriztea eta garraio publikoa eraginkorrago bihurtzea.
4.2. Ekosistemen eta naturako baliabideen gaineko presioa murriztea eta naturako baliabideen (lurzorua, ura, airea, paisaia) kalitatea hobetzea.
4.3. Espazioak artifizialtzearen kontra eta paisaien banalizazioaren kontra borrokatzea eta dibertsitate biologikoari eustea sustatzea.
4.4. Landa garapen integrala sustatzea lurraldearen eta bertan bizi direnen natural balioak babesteko.

<b>5. HE. Jatorri fosileko energiarekiko mendekotasuna txikitzea, eta klima aldaketaren eta horren eraginen aurka borrokatzea</b>
5.1. Energia eraginkortasuna hobetzea eta energia kontsumoa murriztea bultzatzea.
5.2. Energia berriztagarriak sortzea eta erabiltzea sustatzea.
5.3. Klima aldaketari aurre egitea eta egokitzeko ekintzak garatzea.
<b>6. HE. Lurralde barruan egituratzeko eta kanpoaldearekin lotura lehiakorra izateko aukera emango duen mugikortasun integratu jasangarriagoaren ereduak garatzea</b>
6.1. Garraio-modu jasangarriagoak sustatzea.
6.2. Mugikortasun baldintza egoki eta seguruko irisgarritasuna, azpiegitura eta zerbitzu integratutan oinarritutakoa, lortzea.
<b>7. HE. Kalitatezko hezkuntza eta balio sistema sortzea, eskola arrakasta lortzera bideratutakoa, malgua eta moldagarria, lan merkatuak eta gizarateak eskatzen dituen gaitasunetara egokitu ahal izateko</b>
7.1. Bizitza osoan ibilbide profesionalerako eta sozialerako behar diren eskumenak emango dituen prestakuntza sistema garatzea.
7.2. Balioetan oinarritutako prestakuntza sustatzea.
7.3. Euskal kultura eta horren nortasuna definitzen duten elementuak nazioartean hedatzea bultzatzea.
<b>8. HE. Herritarrentzako berritzailea, eraginkorra, irisgarria eta gardena den administrazio publikoa zabaltzea</b>
8.1. Kudeaketa publikoa modernizatzea, eta horretarako herritarrekin erlazionatzeko mekanismoak berritzea.
8.2. Administrazio publikoaren eraginkortasuna indartzea, eta horretarako horren antolamendua eta eskumenen banaketa berrikustea, erakunde barruko eta erakunde arteko lankidetzak sustatzea eta koordinazio mekanismoak indartzea.
8.3. Herritarrek parte hartzeko formuletan eta lankidetzak publiko/pribatuan aurrera egitea.
<b>9. HE. EAEn Milurteko helburuak betetzea, eta, oro har, herrialde kaltetuenean garapen jasangarria lor dezaten laguntzea</b>
9.1. Lankidetzak proiektuen bidez hirugarren munduko herrialdeen garapen jasangarriari modu aktiboan laguntzea.
9.2. Garapen bidean dauden herrialdeekiko merkataritza arduratsua bultzatzea.
9.3. Enpresa eta korporazio pribatuek nazioarteko jardueretan gizarte erantzukizun korporatiboko printzipioak zabal ditzaten lortzea.